20 22

DEBA / ZUMAIAKO MAREARTEKO ZABALGUNEA

Marearteko zabalgune bat edo itsas abrasio-plataforma sortzen da itsasoko olatuek, hondarrak eta airean edo arrastatutako beste elementuek lagunduta, labar baten aurka higatzen dutenean (normalean oinarria desagertzen da eta gainontzekoa erortzen da euskarririk gabe geratu delako). Prozesu honen ondorioz, nahiko laua den azalera bat sortzen da, itsasorantz zuzentzen den jaitsiera txiki batekin.

Deba eta Zumaia arteko Gipuzkoako kostaldean sortutako zabalguneari dagokionez (nahiz eta zabalgune ugari izan lurraldeko kostaldean zehar), higaduraren eraginez, kostaldeko flyscha hondatuz joan da, hura (flysch) sortzeko facies egokienetariko bat den arren (estratu gogorren eta bigunen arteko txandaketa).

Bere itxura estratuen norabidearen araberakoa izango da eta horiek, guztira, hostopil forma hartzen dute. Urik gabeko zabalera, jakina, dena delako itsasaldiaren araberakoa izango da. Sakoneta puntaren inguruan, zenbait puntutan, itsasbehera bizian, 350 metrora iristen da, batezbestekoa 120 m izanik, urpean zenbait metroz jarraitzen baitu.

Zabalgunearen azaleran, ohikoa da mareen arteko kubetak sortzea. Horien berezko ezaugarria da urez beteta egoten direla itsasbeheran, eta fauna eta flora aberatseko lekuak direla.

Labarren atzerakadarekin lotutako fenomeno bitxienen artean haran esekiak daude (normalean erreka txikiak). Horietan, labarraren atzerakadaren eraginez, haranak moztu egiten dira eta haien emaria ur-jauzi moduan erortzen da zabalgunearen gainean.



Marearteko zabalgunea Zumaiako flysch gainean. CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola.

Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. UTM 30N ETRS89 // X: 555974 m // Y: 4794192 m. Irudian adierazitako tartea Sakoneta puntari dagokio, bertan, zabalgunea garatuagoa dago.





Marearteko zabalgunea Sakoneta puntaren mendebaldean.
Iturria. Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa.

Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.
Bertan, argi ikusten dira dimentsio desberdineko hainbat kubeta. Horiek, oro har, fauna eta flora ugari izaten dute.

